



ZUZENBIDE PIRINIARRA II. JARDUNALDIA

**2019ko martxoak 29-30a
Basozabal Jauregia**

AZPEITIA

SARRERA

2016ko maiatzaren 21ean Zuzenbide Piriniarraren I. Jardunaldia ospatu zen Agurainen (Araba). Ezagutza, informazioa, erreferentziak eta interpretazioak bildu eta bateratzeko jardunaldi xume bat izan zen, gaiaren inguruko corpus teoriko bat osatzea helburu izan zuena. Izan ere, piriniar inguruko biztanleriak mende askoz ohituran oinarritutako berezko formula juridiko, instituzional, erabakitze-sistema, lan-antolakuntza eta gizarte-antolakuntza izan dituela jakin badakigu. Hau da, giza-talde honen antolakuntza, erakundeak, legeak eta gizarteko bestelako elementuak ohitura oinarri nagusitzat izan dituztela, auzotasuna eta bizikidetzaz bezalako terminoetatik abiatuta. Inguru geografiko horretan kokatzen da euskaldunen herria, eta zehazki Nafarroako erresuma. Baina guzti honen inguruko dokumentazioa izanik ere, oraino ez da honen inguruko interpretazio sakonik egin. Horregatik hartu genuen gaia ikertzeko erabakia. Jardunaldi eta hitzaldi horietatik Nabarraldek argitaratu zuen liburua atera zen. Gaur, liburu hau Euskal Herriko zuzenbidea, historia eta kultura ezagutzeko tresna baliagarria eta bakarra da.

2019 urteari begira, Azpeitian ospatuko den bigarren lan-jardunaldi bat aurreikusten da, ikerketatik harago jotzeko helburua izango duena. Kultura politiko (nolabait deitzearren, Zuzenbide Piriniarra) horren existentzia bermatuta, bizirauten duen frogatu nahi dugu orain; gaur egun jarraipenik ote duen; bere forma edo adierazpideetako batzuk berreskuratzeko modurik dagoen; eta piriniar herrietako kultura berezi honek etorkizunera begiratzeko tresnak eskaintzerik baduen: hau da, lanari, gizarte-antolakuntzari, pentsamendu politikoari, kultura proiektioari edo bestelako aukera desberdinei dagokienez.

Hipotesia: etorkizuneko kultura

Beste modura esanda, instituzional eta sozialki Zuzenbide Piriniarra deitu zitekeena sortu eta garatu zuen kultura honen baitan, oraindik ere haren adierazpen batzuk topatu ditzakegu: foruak, auzolana, batzarrea, komunalen partekatzea, lurralde-antolakuntza... Fenomeno hori piriniar kulturaren oso

sustraituta dagoela uste dugu eta hipotesi horretatik abiatzen gara. Izan ere, bertatik abiatu dira hainbat formula sozial eta proiektu desberdin, aro eta une historiko desberdinetan: kooperatibak, ikastolak, antimilitarismoa, erresistentzia eta auto-antolakuntza politikoa, bestetan atzematen diren herri-antolakuntza adierazpenak, elkarteak, aldarrikapen sozial desberdinak...

Jardunaldiaren helburua galdera hauei erantzutea izango da: Badaukate gaurkotasun edo etorkizunik formula historiko hauek? Jakintza honetatik ikasi dezakegu gure etorkizuna eraikitzeko?

HELBURUAK

Helburu nagusia:

Adierazi dugun bezala, ekitaldiaren helburu nagusia, gure herriko berezko zeinu dugun Zuzenbide Piriniarraren kulturaren sakontzea da, eta iraganean bezala, etorkizunerako formulak eskaintzen ahal dizkigun frogatzea.

Bigarren mailako helburuak:

1. Ezagutzan, sailkapenean eta adierazpenen gizarteratzean sakontzea, mendeetan zehar aberastu gaituen kapital inkontziente horrek adierazpen zehatz bat izan dezan, hala garatu, landu eta partekatzea ahalbidetuko diguna.
2. Hausnarketa teoriko eta kultural hau etorkizunean garatuko diren proiektu zehatzetara bideratzea, hausnarketa etnografikotik harago, ekarpen praktikoa bat egitea, etorkizunean garatzeko.

Bestelakoak:

Gehigarri bezala, gure kulturaren jakintzan eta kontzeptu zehatz batzuetan sakontzea, ikuspegi hauek:

- Historikoa
- Identitarioa
- Pedagogikoa
- Gizarte ikuspegia
- Kohesio soziala

METODOLOGIA

2019ko martxoaren 29-30a. Basozabal jauregia.

Kongresu edo jardunaldi baten antolakuntza proposatzen dugu, arlo desberdinetako adituak bilduko dituen hitzaldi zikloan oinarrituko dena. Inaugurazio saio batekin hasiko ginateke, piriniar kultura honen zentzua, adierazpen eta baloreak azalduko dituen. Ondoren, akaso egun desberdin batean, gaia garatuko genuke, materia honen sakontasuna erakutsiko luketen gai desberdinak jorrazeko hitzaldi sortaren eskutik.

Bestalde, iraupen motzagoko komunikazioekin osatu daiteke jardunaldia, baita mahai-inguru batekin ere. Tartean, talde bazkari bat izango genuke, egunari jarraipena emateko.

Jardunaldiaren atal akademikoaren osagarri moduan, musika kontzertu bat eta Azpeitia inguruan egingo den bisita gidatu bat ere antolatu daiteke. Halaber, bestelako aktibitateak eta ekintzak proposatu daitezke, jardunaldiari herrian hedapen handiagoa emate aldera, programa sozial osagarri bezala.

EGITARAUA

Ostirala, martxoak 29

ARRATSALDEZ

19:00 – 19:30. INAUGURAZIOA: Eneko Etxeberria, Tasio Agerre

19:30 – 21:00. INAUGURAZIO SAIOA: J.L. Orella Unzué; Jaume Renyer.
Moderatzailea: Luis M^a Mtz Garate

Larunbata, martxoak 30

GOIZEZ

Informazioa:

www.nabarralde.eus – Bidangoz 3-behea, 31014 Iruñea – 948 21 10 57 – nabarralde@gmail.com

09:00 – 09:30. AKREDITAZIOAK

09:30 – 10:00. HITZALDIA: Amaia Nausia: euskal emakumeak historian eta Zuzenbide Piriniarrean.

10:00 – 11:30. HITZALDIA: Asisko Urmeneta: Foruak

10:30 – 11:00. HITZALDIA: Fernando Sánchez Aranaz: Derecho Pirenaico en la memoria carlista.

11:00 – 11:30. ATSEDENA

11:30 – 12:00. HITZALDIA: Mikel Letamiz: Kooperatibak, pentsamoldea, antolakuntza...

12:00– 12:30. HITZALDIA: Peio Monteano: euskera en la historia

12:30 – 14:00. MAHAI-INGURUA: euskera, ahozko hizkuntza eta zuzenbide idatzia.

ARRATSALDEZ

16:00 – 16:30. HITZALDIA: Hodei Mendinueta: Gaztetxeak

16:30– 17:00. HITZALDIA: Izaro Gorostidi: Batzarre, hauzoko eta herriko erabakietan parte hartzearen tradizioa...

17:00 – 17:30. KOMUNIKAZIOAK.

17:30 – 19:00. MAHAI-INGURUA: Herriaren erabakimena eta partehartzea: batzarreak, gaztetxeak, emakumeak, elkarte kultural eta sozialak, ikastolak, instituzioak...

19:00– 19:15 ONDORIOAK ETA ITXIERA



IZEN-EMATEA

Izen-ematea SOILIK 30KO JARDUNALDIRAKO BEHARREZKOA DA

Nabarralderen webgunearen bitartez egin daiteke:

www.nabarralde.eus

Bi izen-emate mota daude:

1. Izen-emate orokorra: 10,00 euro. 
2. Izen-ematea + bazkaria: 25,00 euros. 

PROIEKTUAREN TALDEA

Helburu hauen lorpenerako, proiektua garatu eta antolatuko duen taldea osatzea erabaki da, beharrezko ahalmena eta baliabideak izango dituen, eta jardunaldia egiteko bete beharreko funtzioak eta prozedurak osatuko dituen.

Horretarako, hiru komite sortzea proposatzen da:

Ohorezko komitea

Eneko Etxeberria (Azpeitiako alkatea), Tasio Agerre (Nabarralde Fundazioko lehendakaria).

Komite akademikoa

Luis María Martínez Garate, Fernando Sz. Aranaz, Idoia Arrieta, José Luis Orella Unzué.

Komite teknikoa edo antolakuntza komitea

Aitor Bereziartua, Angel Rekalde, Igor Ibarguren, Mirari Bereziartua, Ihintza Agirretxe, Miren Mindegia, Miren Alzedo, Iñigo Uria.

Informazioa:

www.nabarralde.eus – Bidangoz 3-behea, 31014 Iruñea – 948 21 10 57 – nabarralde@gmail.com



Informazioa:

www.nabarralde.eus - Bidangoz 3-behea, 31014 Iruñea - 948 21 10 57 - nabarralde@gmail.com